**Idazkaritza-Kontuhartzaileta**

2021/07/28an EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 28/07/2021 .

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta  Sologaistoa Aguiriano
Leire San Vicente Carrillo

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2021eko uztailaren 28an, arratsaldeko 18:00etan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoen parte hartzearekin, telematikoki bildu da Ezohiko Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Eluska Irazu Henández eta Ander Errarte del Pozo.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 28 de julio de 2021, quedó constituido telemáticamente el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Eluska Irazu y Ander Errarte.

https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAABWAR8.Uvgz

**1.- 2008KO IRISGARRITASUN PLANAREN ETA HAREN 2021EKO ZABALTZEAREN HASIERAKO ONARPEN-ERABAKIAREN AURKA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOARI BURUZKO ERABAKIA. PLANAREN 2021EKO ZABALTZEARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO ERABAKIA.**

2021eko maiatzaren 11n, Udalbatzak erabaki zuen, besteak beste, Eskoriatzako Irisgarritasun Planari hasierako onarpena ematea (zeinak 2008ko Irisgarritasun Plana eta haren 2021eko zabaltzea jasotzen dituen) eta jendaurrean jartzea.

Erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2021eko maiatzaren 21ean.

Plan hori jendaurrean egon den hogei eguneko epean, honako alegazio hau jaso da, forma eta epe egokian:

- Erregistro zenbakia: 1243, XABIER GONZALEZ PAGALDAY

Alegazioaren egileak oinarrian esaten duena da, plana gaztelaniaz bakarrik argitaratuta Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea urratzen direla, eta gainera euskal herritar guztiek dituzten hizkuntza-eskubideak ere urratu egiten direla. Horregatik, plana euskaraz ere idaztea eta jendaurrean jartzeko tramite berria zabaltzea eskatu du.

Udaleko zerbitzu teknikoek egindako txostenak ikusita, eta Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, EH BILDUKO 2 zinegotziak abstenituta eta bertaratutako gainerako zinegotziek alde bozkatuta (EAJ/PNVKO 6 eta EEEko 1), honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** Xabier Gonzalez Pagalday jaunak aurkeztutako alegazioa BAIESTEA, zuzenbidearen araberakoa delako.

**Bigarrena**: Xabier Gonzalez Pagalday jaunak alegazio-idazkian egindako galderei erantzuteko, udaleko euskara zerbitzuko teknikariak egindako txostenean jasotako erantzunen berri ematea.

**Hirugarrena:** Herritarren hizkuntza-eskubideak ez urratzearren, ERAGINIK GABE UZTEA Eskoriatzako Irisgarritasun Plana, 2008ko Irisgarritasun Plana eta 2021eko luzapena biltzen dituena, hasiera batean onartzen zuen Udalbatzarraren 2021eko maiatzaren 11ko erabakia (2021eko maiatzaren 21eko GAO).

**Laugarrena:** Eskoriatzako Udalaren Irisgarritasun Planaren 2021eko luzapen dokumentua gaur egun euskaraz eta gaztelaniaz idatzita dagoenez, eta, beraz, dokumentu hori jendaurrean jartzean espedientean interesa duten herritarren hizkuntza-eskubideak urratzen ez direnez, 2021eko zabalpen horri hasierako onarpena ematea eta 20 eguneko epean jendaurrean jartzea, iragarki taulan, udal webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratuz. Horrela, interesdunek espedientea aztertu eta egoki ikusten dituzten alegazioak eta/edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte. Jendaurreko epean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, bestelako akordiorik hartu beharrik gabe, behin betiko onartuta geldituko da.

EH BILDUREN BOTO AZALPENA:
Nestor Arana: *Ados gaude aurkeztutako alegazioarekin; baina kontuan izanik hartu beharreko erabakiak bi zati dituela, bigarrena planaren hasierako onespen berri bati buruzkoa dela eta bere garaian plan hori bozkatu zenean abstenitu egin ginela, orain ere abstenitu egingo gara. Hala ere, barkamena eskatu nahi diogu alegatu duenari, eta jakinarazi nahi diogu konpromisoa hartu dugula batzordeetan beharrezko neurriak har daitezen herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuta gera daitezen.*

## 2.- JUAN IGNACIO BADIOLA AZKARGORTAK AURKEZTUTAKO KASAZIO-ERREKURTSOAN BERTARATZEKO DEIA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salak 250/2021 apelazio-errekurtsoan emandako epaiaren aurka Juan Ignacio Badiola Azkargorta jaunak jarritako kasazio-errekurtsoa dela-eta epatzea jaso da.

Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salak 250/2021 apelazio-errekurtsoan emandako epaiaren aurka Juan Ignacio Badiola Azkargortak aurkeztutako kasazio-errekurtsoan agertzea, Madrilgo prokuradore Antonio Sánchez Jauregui Alcaide jaunaren bitartez eta JUAN RAMON UGALDE EGAÑA letratu jaunaren zuzendaritzapean.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura egun honetako 18:10ean. Eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

ESKORIATZAKO UDALA
alkatetza
JOSE RAMON ZUBIZARRETA ALEGRIA
2022/01/2611:58:34

ESKORIATZAKO UDALA
idazkaritza
kontuhartzailetza
MIREN EDURNE ITURBE LASCURAIN
2022/01/2610:53:15

**1.- ACUERDO SOBRE ALEGACIÓN INTERPUESTA AL ACUERDO DE APROBACIÓN INICIAL DEL PLAN DE ACCESIBILIDAD DE 2008 CON SU AMPLIACION DE 2021. ACUERDO DE APROBACIÓN INICIAL DE LA AMPLIACIÓN DE 2021 DEL PLAN.**

Con fecha 11 de mayo de 2021, el Ayuntamiento en Pleno adoptó, entre otros, el acuerdo de aprobar inicialmente el Plan de Accesibilidad del Municipio de Eskoriatza (que contempla el Plan de Accesibilidad de 2008 con su ampliación de 2021) y someterlo a información pública.

Dicho acuerdo fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 21 de mayo de 2021

Durante el plazo de veinte días en que permaneció expuesto al público dicho Plan se presentaron en tiempo y forma las siguientes alegaciones:

- Nº de registro de entrada:1243, XABIER GONZALEZ PAGALDAY

El alegante básicamente viene a decir que al publicarse el Plan sólo en castellano se infringe la Ley de Normalización del uso del euskera, la Ley de Instituciones Locales de Euskadi y que se vulneran los derechos lingüísticos que tiene todo ciudadano vasco. Por ello, solicita, se redacte dicho Plan también en euskera y se abra un nuevo trámite de exposición pública.

Vistos los informes emitidos por los servicios técnicos municipales, y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Urbanismo y Medio Ambiente, el Pleno, con la abstención de los 2 concejales de EH BILDU y el voto a favor el resto de concejales presentes (6 de EAJ/PNV y 1 de EEE), ACUERDA:

**Primero:** ESTIMAR las alegaciones interpuestas por Xabier Gonzalez Pagalday por considerer que son conformes a derecho.

**Segundo:** En respuesta a las cuestiones o preguntas planteadas por Xabier Gonzalez Pagalday en su escrito de alegaciones, darle traslado del informe emitido por los servicios técnicos municipales de euskera.

**Tercero:** En aras a no vulnerar los derechos lingüísticos de la ciudadanía, dejar sin efecto el acuerdo del Pleno de fecha 11 de mayo de 2021 (BOG de fecha 21 de mayo de 2021) por el que se aprueba inicialmente el Plan de Accesibilidad del Municipio de Eskoriatza que contempla el Plan de Accesibilidad de 2008 con su ampliación de 2021.

**Cuarto:** Dado que el documente de ampliación de 2021 del Plan de Accesibilidad está redactado a la fecha tanto en euskera como en castellano, y que por tanto con su exposición al público no se vulneran los derechos lingüísticos de ningún ciudadano interesado en el expediente, aprobar inicialmente la ampliación de 2021 del Plan de Accesibilidad del Municipio de Eskoriatza y someterlo a información pública por plazo de 20 días mediante anuncio publicado en el Tablón de Anuncios, en la WEB municipal y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, al objeto de que los interesados puedan examinar el expediente y deducir cuantas alegaciones y/o sugerencias estimen pertinentes. Si durante el periodo de información pública no se

presenta alegación o sugerencia alguna quedará definitivamente aprobado sin necesidad de posterior acuerdo.

EXPLICACION DE VOTO DE EH BILDU:
Nestor Arana: *Estamos de acuerdo con la alegación presentada; pero atendiendo que el acuerdo a adoptar consta de dos partes, que la segunda es relativa a una nueva aprobación inicial del plan y que en su día nos abstuvimos a dicho plan, nosotros nos abstendremos ahora también. No obstante, queremos pedir disculpas a quien ha alegado y hacerle saber que adquirimos el compromiso de que en las comisiones se adopten las medidas necesarias para que los derechos lingüísticos de los ciudadanos queden garantizados.*

**2.-EMPLAZAMIENTO PARA PERSONARSE EN EL RECURSO DE CASACIÓN INTERPUESTO POR JUAN IGNACIO BADIOLA AZKARGORTA**

Ante en el emplazamiento recibido con motivo del recurso de casación interpuesto por D. Juan Ignacio Badiola Azkargorta contra la sentencia dictada por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco- Sala de lo Contencioso-Administrativo en el recurso de apelación 250/2021, y

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Urbanismo y Medio Ambiente, el Pleno, por unanimidad ACUERDA:
Comparecer en el recurso de casación interpuesto por Juan Ignacio Badiola Azkargorta contra la sentencia dictada por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco- Sala de lo Contencioso-Administrativo en el recurso de apelación 250/2021 a través del Procurador de Madrid D. Antonio Sánchez Jauregui Alcaide y bajo la dirección del Letrado D. JUAN RAMON UGALDE EGAÑA.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:10 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**